



ZESTOAKO UDALA

## AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko otsailaren 21ean buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2019ko urtarrilaren 15ean buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK

2.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, "erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitzetara partikularretako logeleari" aplikagarria den araudia dela-eta, izapidetze elektronikoa egiteko Udaleko ordezkaria izendatzeko eskaera egin du. Ondorioz, Gaizka Perosterena udal artikektoa izendatzen da txosten teknikoak egiteko eta Izaskun Larrañaga ingurumen teknikaria izapidetze elektronikoa eta harremanetarako.

3.- S.F.A.k, kiroldegiko eraberritze eta handitzearen 11. eta 12. zertifikazioak aurkezten ditu. Lehena 127.609,33 eta bigarrena 170.726.14 eurotakoak. Ontzat ematea erabaki da.

4.- F.P.V.k, Aizarnako elkarte eta bere etxea ondoan daudela eta elkartetik bere garajera ura sartzen denez, erreklamazioa aurkezten du. Zehazten diren kalteak ikusteko, tokian bertan ikuskaritza bat egingo du udal bulego teknikoak brigadako enkargatuarekin.

5.- E.L.L.k, 2018ko urriaren 8an Endoiabidean erorita zegoen zuhaitzak bere ibilgailuari sortutako kalteak direla-eta, erreklamazioa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea Zestoako Udalak 2018ko urriaren 8an Endoiabidean erori zen zuhaitzaren inguruko informaziorik ez duela jaso eta dokumentazioan aipaturiko puntuan ez dagoela udalaren jabetzako ez lurrik, ez zuhaitzik, ondorioz, edozein kasutan ere, jabearengana zuzendu beharko duela.

6.- Artola Aroztegia S.L.k, Bainuetxeko errepidea 6-8 eraikineko arotz jarduera beste urtebetez luzatzeko eskaera egiten du. Udalak erabaki du aipaturiko arotz jarduerarako baimena, behin behineko izatearekin, beste urtebetez luzatzea.

7.- J.L.E.A.k, Arroabeko Artubia aldea ibardiaren berreskuperatze eta hobetze lanen urtarileko hilabeteari dagokion kamioi erregistroa eta plana aurkezten ditu. Jaso izanaren adierazpena egitea erabaki da.

8.- A.E.Z.k, Mollergi tabernaren titularitate aldaketa dela-eta, Udalak igorritako erantzunaren inguruko idatzia aurkezten du. Alde batetik, Portale kalera aldera ematen duen atea ixtea eskatzen du Udalak eta horrek negozioan eragina izango duela dio; atea ixtearen zentzua gau aldean ikusten du. Bestalde, instalazio elektrikoaren ziurtagiria aurreko jabeari eskatu diotela azaltzen du. Erabaki da titularitate aldaketa egin ahal izateko, 2019ko urtarrilaren 15ean ezarritako baldintzak bete beharko direla, hau da, hasierako proiektuan aurreikusten ez zen Portale kale aldeko atea itxi behin betikoz eta azpiegituren inguruko ziurtagiriak aurkeztu.

9.- I.O.A.k, 2016 urtean Movistarrekoak baimenik gabe bere baserrian sartu zirela eta, Movistar fibra optikaren kontra jarri duen salaketaren inguruko idatzia aurkezten du. Erabaki da salaketa hau Movistarri jakinaraztea eta baserriarren eskubideak babesteko protokolo bat prestatzea.

10.- A.A.U.k, Donostiako Elizbarrutiaren izenean, segregazio baimena eskatzen du Lasao Hiribidea 2, 4, 6 eta 8 zenbakiak dituen eraikineko zatian terraza bereiztea. Udalak segregazio baimena ematea erabaki du eta Alkatea baimentzea beharrezko dokumentuak sinatzeko.

11.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Arroabean, N-634 eta GI-631 errepideen artean, biribilgunea egiteko esleipenari buruzko informazioa igortzen du. Berri eman da.

12.- J.O.U.k, Araneta erretegian desmuntagarria den portxea jartzeko baimena eskatzen du. Aurkeztu den proposamena ontzat ematen du batzordeak, baina baimena eman aurretik jarri beharreko estalki desmuntagarriaren inguruko memoria, planoak eta aurrekontua aurkeztu beharko ditu udalean.

13.- I.E.k, Arroaerrekako Mañene baserrian egiten ari diren obrei buruzko kexa aurkezten du. Udalak Arroaerrekako Mañenea baserrian ukuilua egiteko eman zen baimena eta espedientea aztertuko ditu , eta ondoren hartu beharreko neurriak hartuko dira.

14.- E.O.k, Arroaerrekako Baserritxo inguruan zanga bat gaizki dagoela eta hori zuzentzeko, hormigoia botatzeko udal baimena eskatzen du. E.O.k Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide sailarekin harremanetan jarri beharko du, berak lur azpian sartu nahi duen hodiak zein ezaugarri eta zein baldintza bete behar dituen jakiteko. Horrez gain, Urak Ur Agentziari egin nahi den obraren berri emango zaio.

15.- J.M<sup>a</sup>.A.E.k, liburutegi azpiko lokala libratzen denean, ludoteka jartzeko eskaera egiten du. Proposamena kontutan hartzea erabaki da.

16.- A.L.Z.k, San Juan ermita ondoko eskailerak egoera txarrean daudela eta zerbait egiteko eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Udalak San Juan ermitaren inguruko eskailerak berritzeko materiala eskuratuta daukala eta epe ertainera lan hau egitea aurreikusten dela.

17.- I.A.k, Arroabeko Kultur Etxeko berogailuak zaharrak daudela eta beste batzuegatik ordezkatzeko eskatzen du. Udalak erabaki du kontsumo baxuko berogailuak erostea.

18.- Lasaoko Izarraizpe Kultur Elkartek, herri etxearen atzekaldean estalpe bat egiteko onespina ematea eskatzen du. Baimena lortu aurretik, teknikari gaitu batek izenpeturiko dokumentazioa aurkeztu beharko da estalpearen ezaugarri, material eta dimentsioak zehaztuz.

19.- G.H.k, Lizarraitz auzunea 4D etxebizitza erreformatzeko proiektu bisatua aurkezten du eta obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

20.- A.Z.E.k, Estazioko industri aldean (ibaiaren ondoko zuzen bidean) zulo haundiak daudela dio, eta horiek tapatzea eskatzen du. Udal brigadak epe motzean herriko zenbait bideetan asfaltatze lanak egingo ditu aipaturiko zulo hau ere, zerrenda honetan sartuko da.

21.- M.E.M.H.k, Arroagoiko Estrataberri etxean, 1990 urtean eginiko obren amaierako ziurtagiria aurkezten du, EITa egiteko data hori kontutan hartzeko eskatuz. Erabaki da jakinaraztea 1990eko irailaren 3tik aurrera 50 urte igaro ondoren, egin beharko dela EIT txostena.

22.- M.R.A.B.k, Etorrabidea 3ko Etorrazpi baserria ez dagoela herri bidearen ondoan dio, eta ondorioz, EIT txostena ez egitea eskatzen du. Herri bidearen ondoan ez dagoela egiaztatu ondoren, orain ez zaio EIT txostena udalean aurkeztea errekerituko.

23.- I.E.E.k, Aizarnako Santakurutz kalea 5 etxeko terrazaren azpia egokitzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabakia da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

24.- Gaztendoia elkarteak, Endoia eta herrigune nagusia lotzen duen errepidearen egoeraren inguruko idatzia aurkezten du. Ondorengo erabakiak hartu dira: lurjausia egin den puntuan, mikropilote bidez bidea egonkortzeko lanak hastea eta amaitu ondoren, "bionda" edo itxitura bat jartzea aztertzea; 2019ko otsailaren 25etik aurrera, 2 astez, Endoiabidea itxi egingo da lurjausia konpontzeko, beraz, egun hauek baliatuko ditu udal brigadak asfaltoarekin mantenu lanak egiteko.

25.- J.M.U.I.k, Bengoetxebidea 1 etxeko EIT egiteko data 1994ko apirilaren 26tik kontatzen hasteko eskaera egiten du. EIT txostena egiteko erreferentzizko data, 1994eko apirilaren 26a (obra amaierako ziurtagiriarena) izango da. Data honetatik 50 urtetara egin beharko zaio EIT txostena etxebizitza honi.

26.- P.I.G.k, Aizarnako Ibarra baserria biltegi bezala erabiltzen dutela-eta, EITa ez pasatzeko eskaera egiten du. Biltegi bezala erabiltzen dela egiaztatu du udalak, beraz, eraikin honi ez dagokio EIT txostena egitea.

27.- J.I.A.k, Zesareo Diaz kalea 3ko Jabekideen izenean, fatxadaren konponketa dela eta, andamioak jartzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da.

28.- M<sup>a</sup>C.U.B.k, Arroagoiko Arbegoikoa baserriak nekazal erabilera duela eta, EITa ez pasatzeko eskaera egiten du. Udalak baserri zaharra biltegi bezala erabiltzen dela egiaztatu du eta, ondorioz, eraikin honi ez dagokio EIT txostena egitea.

29.- Tesinsa S.A.k, Endoiabideko lurjausia dela-eta, berau konpontzeko proposamena eta aurrekontua aurkezten ditu. Aurrekontua guztira 39.398,00 € + BEZ da. Aurrekontua onartu da.

30.- Toribio Altzaga kalea 26ko Jabekideek, eraikin horrek 2008 inguruan hondamen-egoeraren deklarazioa jaso ote zuen eta EITa ez pasatzeko eskaera egiten dute. Udalak ez duenez horren konstantziarik, EIT txostena pasa beharko du.

31.- M.Z.U.k, otsailaren 22tik 27ra Foru Plaza 3 eraikineko fatxadan material hidrofugo bat emango dutela-eta, obretako baimena eta plataforma erabiltzeko baimena eskatzen ditu. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

32.- P.G.A.k, Aizarnako Zabale baserriko Obra Zuzendaritzako azken egiaztapena aurkezten du. Udalak jakinarazten dio lehen erabilera baimena eman ahal izateko dokumentazioa aurkeztu beharko duela.

33.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, GRI Casting S.L. enpresaren azken bi ingurumen zaintza programen kopiak aurkezten dituzte, 2016 eta 2017 urteei dagozkienak. Ondorengo erabakiak hartu dira: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari e-postaz bidali ondorengo kexen gaineko informazioa bidaltzea; jakinaraztea martxoaren 27ko ikuskaritzan parte hartuko dutela Udal Zerbitzu Teknikoek; GRI Castings S.L-ri 2018ko ingurumen zaintza programarako egindako emisioen azterketa eskatzea eta 2019rako egin beharreko zarata azterketa aurreratzeko aukera aztertzea Eusko Jaurlaritzaren eta GRI Castings S.L.rekin

34.- Arretxe plaza 1-2ko Jabego elkarteak, eraikineko teilatua konponketa batzuk egiteko obretako udal baimen eskaera egiten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

35.- J.M<sup>a</sup>.Z.L.k, Aizarnako Bikendi baserriko teilatua konpontzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

36.- Arteaga auzunea 15eko Jabego elkarteak, Arteaga auzunea 15 eraikineko fatxada margotzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

37.- J.A.E.k, Lilibe baserriko aurre, atze eta alboko paretetan, hainbat lan egiteko udal baimena eskatzen du; baita mandioko ate-leihoak zabaldu eta zapairako ateak jartzeko ere. Foru Aldundira baimena eskatu behar den begiratu behar denez, hurrengo batzorderako utzi da.

38.- G.B.O.k, Pagiolarre baserrian dauden txakurrentzako txabolak legeztatzeko dokumentazioa aurkezten du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

39.- Gorriye txakur egoitza, berri eman da 2014ko urtarrilaren 8ko Gobernu Batzordean Bergarako Elurra Txakurtegiari urte betez esleitu zitzaioela txakurrak jasotzeko zerbitzua. 2018ko urrira arte luzatu zen zerbitzua. Elurra Txakurtegiak orain arte eskainitako zerbitzuagatik hileko kuota 170 € (BEZa kanpo) izan da. Ez da jasotzen 24 orduko larrialdi zerbitzua, ezta txipa jartzearena ere. Ez du asmorik agertu 24 orduko larrialdi zerbitzua betetzeko. Bestalde, Gorriye txakur egoitzak aurkeztutako eskaintza honakoa da: 250€ hileko (BEZ kanpo). Kopuru horri, hilabete horretan jarritako txip bakoitzaren kostua gehituko zaio, 40€ (BEZ kanp). 24 orduko larrialdi zerbitzua jasotzen du, baita txipa jartzearena ere. Eskualdeko enpresa bat dela ere gaineratzen da. Erabaki da Gorriye txakur egoitzaren proposamena onartzea.

40.- J.M<sup>a</sup>.A. eta B.G.k, Gesalaga kalea 1ean eskatutako leihoak aldatzeko udal baimena eman ondoren, Udalak kobratutako tasa dela-eta, idatzia aurkezten dute. Jakinarazten zaie beste udal batean kontsulta egin dela, eta udal horietan, Zestoako Udalean bezala, leihoen trataera berdina ematen zaie fatxadako lehiateei.

41.- Eroski S.Coop.ek, Sansinenea industrialdeako A3 partzelan duten jarduera aldaketa tramitatzea eta, titularitate aldaketa egitea ere eskatzen du. Ontzat ematen da titularitate aldaketa eta Udal Zerbitzu Teknikoek aurretiazko jakinarazpenean jasotzen diren baldintzak ikuskatzeko edota egiaztatzeko, bixita egiteko harremanetan jarriko dira eskatzaileekin.

42.- Gestoria Zubiak, Sansinenea Industriagunean, Copal enpresaren aurrean dauden kalteturiko azpiegituren arketen argazkiak bidaltzen ditu, eta kontsulta egiten du, arketa hauen konponketa nori dagokion. Jakinaraziko zaio argazkietan azaltzen diren azpiegituren arketak eremu pribatuan daudela, beraz, udalari ez dagokio arketa hauek konpontzea.

### **3. Batzorde informatiboetako aktak onartzea**

2019ko urtarrilaren 24an, Auzoak eta baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2019ko urtarrilaren 30ean, Gazteria eta Kirol Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2019ko urtarrilaren 24an, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2019ko otsailaren 12an, Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko akta onartzea.

2019ko urtarrilaren 29an, Ogasun Batzordeak eginiko akta onartzea.

2018ko urriaren 24an, Sozioekonomia Batzordeak eginiko akta onartzea.

2018ko azaroaren 21ean, Sozioekonomia Batzordeak eginiko akta onartzea.

2019ko urtarrilaren 23an, Sozioekonomia Batzordeak eginiko akta onartzea.

### **4.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako Ebazpenen berri eman da:**

- \* 6 zk, I.A.E. bitarteko funtzionario izendatzea brigadako peoi lanpustuan aritzeko, abenduaren 31 arte.
- \* 7 zk, L.A.M.en behin-behineko kontratazioa M.T.ren gaixotasun baja amaitu arte.
- \* 8 zk, Arroabeko eskola berrian, kanpoko umeen jolastokian, zorua babesteko 55 m2 kautxo jartzeko lanen onarpena.
- \* 9 zk, I.A.E.ri umeen zaintzagatik eszedentzia eskaeraren onarpena, otsailaren 13tik hasita.
- \* 10 zk, Ertxiña Musika Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dien zuzeneko ordainketaren zatia ordaintzeko agindua (3.000€).
- \* 11 zk, Karmengo Amaren errepidea 12 zk. eraikinaren EIT-ko 3.mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.

- \* 12 zk, Narrondo auzoa 4 zk. eraikinaren EIT-ko 3.mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.
  
- \* 13 zk, Juan Erentxun kalea 4 zk. eraikinaren EIT-ko 3.mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.
- \* 14 zk, Santa Ana plaza 9 zk. eraikinaren EIT-ko 3.mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.
- \* 15 zk, Olaizola eta Uria kalea 14 zk. eraikinaren EIT-ko 3.mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.
- \* 16 zk, Lasao kalea 6 zk. eraikinaren EIT-ko 3.mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.
- \* 17 zk, Ariztondo kalea 1 zk. eraikinaren EIT-ko 3. mailako esku-hartzea egiteko errekerimendua.
- \* 18 zk, Lorbidea 1eko Arizmendi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 19 zk, San Pelaio bideko Benezi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 20 zk, Altzolarazpidea 4ko Urbieta baserriari EITa a pasatzeko errekerimendua.
- \* 21 zk, Altzolarazpidea 5eko Zorrontza baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 22 zk, Altzolarazpidea 6ko Aristizabal baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 23 zk, Autsoroko errepidea 4ko Ibarra baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 24 zk, Autsoroko errepidea 11ko Lizaoseta-haundi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 25 zk, Autsoroko errepidea 10eko Lizaoseta-txiki baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 26 zk, Autsoroko errepidea 13ko Lizasoeta baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 27 zk, Bengoetxebidea 1eko Tiribogatziki baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 28 zk, Bengoetxebidea 2ko Txiribogaberi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 29 zk, Bengoetxebidea 3ko Indoetxea baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 30 zk, Bengoetxebidea 4ko Errota baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 31 zk, Ezenarrobidea 8ko Igartzaundi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 32 zk, Ezenarrobidea 9ko Igartzatziki baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 33 zk, Lorbidea 8ko Etxeberri baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 34 zk, Meagako errepidea 5eko Amilibia baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 35 zk, Meagako errepidea 13ko Auzpandegi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 36 zk, Santa Engrazia bidea 9ko Egañazpi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 37 zk, Santa Engrazia bidea 1eko Zabale baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 38 zk, Agotebidea 1eko Guardizar baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 39 zk, Areitzagabidea 7ko Areitzaga baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 40 zk, Larrazabalbidea 4ko Larrazabalarra baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 41 zk, Larrazabalbidea 1eko Erkisketabekoa baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 42 zk, Igarategibidea 2ko Elosuenea baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 43 zk, Juan Erentxun kalea 1eko Ospitalea baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 44 zk, Juan Erentxun kalea 12ko Kutzbenta baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 45 zk, Arbebidea 1eko Kutrulu baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 46 zk, Arbebidea 4ko Arbe baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 47 zk, Arroarrekako bidea 8ko Igartzaundi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 48 zk, Arroarrekako bidea 9ko Errementari baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 49 zk, Ibañarrietako bidea 6ko Benta baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 50 zk, Igarategibidea 9ko Zugastitxiki baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.

- \* 51 zk, Iraetabidea 10eko Errota etxeari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 52 zk, Meagako errepidea 1eko Sebastopolberri baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 53 zk, Lasao kalea 11ko Abeletxe baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 54 zk, Bainuetxeko errepidea 19ko Alberdikoa baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 55 zk, Bainuetxeko errepidea 17ko Alberdikoa baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 56 zk, Bainuetxeko errepidea 5eko Yoga etxeari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 57 zk, Etorrabidea 3ko Etorrazpi baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 58 zk, Akoabidea 6ko Aurrekoetxea baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 59 zk, Areitzagabidea 5eko Zelaikoa baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 61 zk, Zestoako Udalak Zestoako Interpretazio Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordaintzaren lehen zatia, aurrerapen gisa, ordaintzeko agindua ematen duena.
- \* 62 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Arteaga 3.
- \* 63 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Arteaga 4.
- \* 64 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Elizkalea 1.
- \* 65 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Erdikalea 1.
- \* 66 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Erdikalea 4.
- \* 67 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Erdikalea 9.
- \* 68 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Foru 3.
- \* 69 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Gesalaga 2.
- \* 70 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Kaleokerra 4.
- \* 71 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Kaleokerra 8.
- \* 72 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Kaleokerra 10.
- \* 73 zk, 3. graduako esku-hartzea zehazten duen EITa (errekerimentua) \_Kaleokerra 12.
- \* 74 zk, Arroako errepidea 1eko Kaminero baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 75 zk, Endoiabidea 4ko Barrenso baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 76 zk, Endoiabidea 16ko Apaizetxea baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 77 zk, Santa Engrazia bidea 7ko Listorritzaga baserriari EITa pasatzeko errekerimendua.
- \* 78 zk, X.E.U.ren bitarteko funtzionario izendapena peoi lanak egiteko, urtarrilaren 29ko datarekin.
- \* 79 zk, Arroako errepidea 4ko Olidenaundi baserriko bigarren solairuko zorua berdintzeko obretako udal baimena.
- \* 80 zk, Aizarnako 5.polygonoko 8.lursailean oilo erruleentzat nabea eraikitzeko udal baimena ematen zaio J.A.G.ri.
- \* 81 zk, 2017an kalean aurkitu zituen 1.475 euroren itzulketa B.F.i
- \* 82 zk, Karmengo Amaren errepidea 12 etxebizitza ondoko txabolaren teilatua aldatzeko obretako udal baimena ematen zaio J.U.A.ri.
- \* 83 zk, Larrain kalea 3 3.ezkerra etxebizitzan obrak egiteko ( sukaldeko instalazio elektrikoa eta ur tomak aldatu) baimena ematen zaio J.E.L.ri.
- \* 84 zk, GFAk San Juan egoitzari ordaindu beharreko dirulaguntza beraiei ordaintzea.
- \* 85 zk, LED sistemaren inguruko erabakiaren berri ematen zaio E.L.ri.
- \* 86 zk, M.A.A. bitarteko funtzionario izendatuz Gizarte Langile bezala.
- \* 87 zk, A.A.Ir.i Zestoako Baratze Parkeko 11 zenbakidun ortua esleitzeko erabakia.

## **5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK**

- Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin, 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaz-hitzarmenekiko atxikimendu protokoloa.

## **6.- GALDERA ETA ERREGUAK**

Ez dago.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e

Alkateak,